

ELAk kargu hartzen dio Espainiako Gobernu eta eragile sozialen azken agiriari

Ardurak ezkutatzeko “adierazpena”

ELAren iritziz, Espainiako Gobernuak, CCOOek, UGTk eta enpresaburu elkartek sinatu duten akordioa eragile horiek guztiek azken urteotan daramaten bidearen jarraipena da:

- Berriro eskubideak murriztuko direla iragartzen dute. Egia da propio saihesten dutela ‘erreforma’ hitza, baina aipatzen dutena egiteko bide bakarra lege-erreformak dira. Adibidez, ABLEak galarazita zeukaten esparrutan jarduteko aukera irekitzea, edo gutxienik negoziazio kolektiboari eta pentsioei buruzko lan-legeriaren erreforma. Hitzak kontuz erabili badituzte ere, atal horietako bakoitzaren inguruko juzku oso kritikoa egiten dugu.
- Enpresaburuei laguntza gehiago ematearen alde egiten dute.

ELAren ustez Akordioak egoera ekonomikoa epaitzerakoan nahita salbu uzten ditu hain zuzen gertatu denaren ardura dutenak; ez dago inolako kritikarik, ez politika, ez ekonomiaren aldetik. Urte sakotan enpresaburuen etekinak itxuragabe hazi dira, eta orain, ustekabean, ‘mundu guztiak’ eman behar du ordainen bat. Azken urteetan enpresen irabaziek izan duten kutsu espekulatiboa ez da auzitan jartzen, eta honi oso larria dela irizten diogu.

Akordioak ez ditu hainbat gauza esaten:

- Hazkundera moteldu bada, horrek ez dauka inondik ere zerikusirik soldatekin edo gizarte-gastuarekin.
- Enpresen etekinek dute eraginik handiena inflazioan.
- Enpresarien eta kapitalaren errentak hazkunde ekonomikoari esker hazi dira, eta laneko errentak, aldiz, aberastasunean duten zatia galdu egin dute.
- Politika publikoak enpresarien klasearen onerako egin dira, langile-klasearen lepotik.

Halaber, ELAk nabarmendu nahi du agiri honen edukiari eta mugitu duen asmoari darion kutsu zentralista.